

## I. Atala / Sección I

Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Administrazioa  
Administración Foral del Territorio Histórico de Bizkaia

## Foru Aldundia / Diputación Foral

Kultura Saila

**Bizkaiko Foru Aldundiaren 9/2010 FORU DEKRETUA, otsailaren 16koa, udal titulartasuneko erakusketa aretoek 2010. urtean erakusketa koordinatuak egin ditzaten sustatzeko diru-laguntzen deialdi publikoa arautzen duena.**

Euskal Autonomi Erkidego Osorako Erakundeen eta Lurralde Historikoetako Foru Erakundeen arteko Harremani buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legeak, bere 7. artikuluan, lurralde historikoei eskumen eskusiboa ematen die, besteak beste, arlo hauetan: Lurralde historikoaren titulartasunekoak diren eta Arte Ederrekin eta Artisautzarekin zerikusia duten artxibo, biblioteka, museo eta erakundeen arloan. Eskumen hori betearazteko, Bizkaiko Foru Aldundiak, bere eskumenen barruan, kultura diziplina guztietan bultzatu, sustatu eta hedatzeko helburua duten jardute-lerro batzuk dauzka abian. Horien bidez, Arte Ederren arloko sormen artistikoa eta berorren hedapena sustatu nahi dira.

Horrela egiten da, alde batetik, zuzeneko ekintzen bitartez: kultur arloko bekak eta laguntzak ematen ditu, besteak beste, ikus-arteetan, musikan, antzerkian eta dantzari; eta «Ertibil» ikus-artearen erakusketa ibiltaria antolatzen du. Beste alde batetik, Bizkaiko udalekin batera, lurraldeko udaletako kultur atalek ikus-arteak sustatzeko egiten diren jarduera programetarako laguntzak ematen ditu. Era berean, Bilboko Arte Eder Museoan eta Bilboko Guggenheim Museoan parte hartzen du, eta horrez gainera, ikus-arteak sustatzeko proiektuak garatzen dituzten Bizkaiko elkartei laguntza ematen die ere.

Ildo horretatik, Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Sailaren ustez, Bizkaiko udaletako erakusketa aretoek jarduerak koordinatuta egiteak asko lagunduko luke jendarteratze estrategia horretan eta, aldi berean, ekipamendu horien arteko koordinazio handiagoa ekarriko luke, horrek dituen hobari guztiekin.

Azaldutakoa dela bide, eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 17., 39.k) eta 64.3. artikuluek xedatutakoa ikusita, eta Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautu duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauan eta Kulturako Foru Sailaren egitura organikoari buruzko araudia onetsi zuen uztailaren 26ko 132/2006 Foru Dekretuak emandako ahalmenak erabiliz, Kultura Saileko foru diputatu andre txit argiak proposaturik, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak 2010eko otsailaren 16(e)ko bilerran eztabaidatu eta onetsi ondoren, honako hau

XEDATU DA:

**1. artikulua.—Xedea**

1. Foru dekretu honen xedea da jarraian adieraziko diren erakundeek antolatzen dituzten arte plastikoen udalaz gaindiko erakusketa egitarauak sustatzeko diru-laguntzen deialdi publikoa arautzea:

- Udal titulartasuneko erakusketa aretoek antolatzen dituztenak.

Departamento de Cultura

**DECRETO FORAL de la Diputación Foral de Bizkaia 9/2010, de 16 de febrero, por el que se regula la convocatoria pública de subvenciones forales destinadas a fomentar la realización de exposiciones coordinadas entre las diferentes salas de exposiciones de titularidad municipal en el año 2010.**

La Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos, atribuye en su artículo 7.º a estos últimos competencia exclusiva, entre otras, en las siguientes materias: «Archivos, bibliotecas, museos e instituciones relacionadas con las Bellas Artes y Artesanía de titularidad del Territorio Histórico». En aras a hacer efectiva la misma, la Diputación Foral de Bizkaia tiene en marcha diversas líneas de actuación, tendentes, en su propio ámbito competencial, al fomento, la promoción y difusión de la cultura en sus distintas disciplinas, a través de las cuales y en lo que a las Bellas Artes respecta, se trata de estimular la creación artística y su posterior divulgación.

Se actúa así, de una parte, mediante acciones directas como son las becas y ayudas en el ámbito cultural, en las modalidades, entre otras, de artes visuales, música, teatro y danza, y la Muestra Itinerante de Artes Visuales «Ertibil»; de otra, y en colaboración con diferentes ayuntamientos, ayudas a los programas de actividades que desarrollan las áreas de cultura de los ayuntamientos del Territorio cuyo objetivo es la promoción de las artes visuales; así mismo, a través de su participación en el Museo de Bellas Artes de Bilbao y Museo Guggenheim Bilbao e igualmente, mediante el apoyo a las diferentes entidades asociativas de Bizkaia para desarrollar proyectos de promoción de las artes visuales.

En este sentido, el Departamento de Cultura de la Diputación Foral de Bizkaia, entiende que la realización de actividades de forma coordinada entre las diferentes salas de exposiciones municipales apoyaría dicha estrategia de difusión, a la vez que impulsaría una mayor coordinación entre dichos equipamientos con las ventajas que ello conlleva.

En virtud de lo así expuesto y vistos los artículos 17, 39.k) y 64.3 de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, y en uso de las facultades conferidas por la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, y por el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 132/2006, de 26 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de Estructura Orgánica del Departamento Foral de Cultura, a propuesta de la Ilma. Sra. diputada foral titular del Departamento de Cultura, previa deliberación y aprobación de Consejo de Gobierno de esta Diputación Foral en reunión de 16 de febrero del año 2010,

SE DISPONE:

**Artículo 1.—Objeto**

1. Constituye el objeto del presente decreto foral regular la convocatoria pública de subvenciones forales para promocionar el desarrollo de programas de exposiciones de artes visuales de alcance supramunicipal organizadas por:

- Las diferentes salas de exposiciones de titularidad municipal.

— Bizkaiko udalerriek itundutako erakusketa aretoek antolatzen dituztenak.

Erakusketen edukiak Arte Garaikideari buruzkoak izango dira.

Diru-laguntzak norgehiagoka sistemaren bidez emango dira: foru dekretu honen 5. artikuluan ezarri diren irizpideen arabera baloraziorik altuena lortzen duten eskabideei emango zaie diru-laguntza, baina dagokion aurrekontuko partidan izendatutako zenbatekoa muga dela.

2. Udalez gaindikotzat jotzen dira euren interes bereziagatik eta kalitateagatik udal mailako kultur zabalkunde esparrua gainditzen duten erakusketak; eta, gutxienez, Bizkaiko hiru udalerritan programatuak izan beharko dute.

3. Diru-laguntzaren eskabide-gai izango diren egitarauak edo erakusketak 2010eko ekitaldiaren barruan hasi beharko dira, eta horiek burutzeko azken data 2010eko abenduaren 31 izango da.

4. Beren-beregi geratu dira foru dekretu honen aplikazio eremutik kanpo ondoko hauek egindako jardueren ondorioz antolatzen diren erakusketei buruzko proiektuak:

— Udaletako ikus-artearen tailerretako partaideenak.

— Akademia pribatuena.

— Ikastetxe eta irakaskuntza-zentroenak.

Foru Dekretu honen eremutik kanpo geldituko dira, Kulturako Foru Sailaren iritziz, gutxienezko kalitate teknikorik edota artistikorik ez duten proiektuak, baita titulartasun publikoa ez duten edo udalen batek itundutakoa ez den edozein motatako erakusketa aretok eginikoak ere.

## 2. artikulua.—*Onuradunak*

Foru dekretu honek araututako diru-laguntzak Bizkaiko Lurralde Historikoko udalek, udal erakunde autonomoek eta udal fundazio publikoek soilik jaso ditzakete, baldin eta erakusketa aretoetarako euren kultur hornikuntza edota hornikuntza itundua badute. Hornikuntza horrek honako baldintza hauek bete beharko ditu, erabiliko direnerako beharrezko baitira:

- Aretoak zuzendari-arduraduna izatea.
- Halako ekipamenduetarako ezarrita dauden segurtasun-neurriak betetzea.
- Aretoa zainduta egotea, jendearentzat zabalik dagoen orduetan.
- Egunean zehar gutxienez lau orduetan (goizez edo arratsaldez) jendearentzat irekita egotea.

## 3. artikulua.—*Agiriak*

3.1. Diru-laguntzarako eskaerak eskabide-orri ofizialean (eredua foru dekretu honen I. eranskinean dago) aurkeztu behar dira. Horrez gainera, honako zerrenda honetako agiriak ere aurkeztu beharko dira:

3.2. Erakusketa bakoitzari buruzko proiektua, honako alderdi hauek zehaztuz:

- Helburuak.
- Erakusketaren edukia.
- Erakusketaren ibilbidea eta egun zehatzak.
- Proiektu komunaren sarrera eta gastuen aurrekontu osoa (II. eranskina):

— Sarreraren atalean honako kontzeptu hauek zehaztuko dira:

- Beste diru-laguntza batzuen bidezko diru-sarrerak.
- Babesle pribatuek emandako diru-sarrerak.
- Katalogoak saltzen eskuratutako diru-sarrerak.

— Las salas de exposiciones concertadas en los ayuntamientos de Bizkaia.

Los contenidos de las exposiciones versarán sobre Arte Contemporáneo.

La concesión de las citadas subvenciones se realizará mediante el sistema de concurrencia competitiva, esto es, otorgándose la subvención a aquellas solicitudes que hayan obtenido mayor valoración, según los criterios que se establecen en el artículo 5 del presente decreto foral, teniendo como límite la cuantía consignada en la correspondiente partida presupuestaria.

2. Se entiende por carácter supramunicipal de las exposiciones, aquellas que por su especial interés y calidad superen el marco de difusión cultural municipal y que sean, al menos, programadas en tres municipios de Bizkaia.

3. Los programas o exposiciones que motiven la solicitud de subvención, deberán tener su inicio dentro del ejercicio 2010, teniendo como fecha límite de ejecución el 31 de diciembre de 2010.

4. Quedan expresamente excluidos del ámbito de aplicación del presente decreto foral, aquellos proyectos que hagan referencia a exposiciones resultantes de las actividades realizadas por:

— Los participantes en los talleres de artes visuales municipales.

— Las academias privadas.

— Colegios y centros de enseñanza.

En su caso, quedan excluidos del ámbito del presente decreto foral los proyectos de exposiciones que, a juicio del Departamento Foral de Cultura, no tengan una mínima calidad técnica y artística, o bien hayan sido formulados por cualquier tipo de sala de exposiciones cuya titularidad no sea pública o de carácter municipal concertada.

## Artículo 2.—*Beneficiarios*

Podrán ser beneficiarios de las subvenciones reguladas por el presente decreto foral únicamente los ayuntamientos, organismos autónomos municipales y fundaciones públicas municipales del Territorio Histórico de Bizkaia, que cuenten con equipamientos culturales propios o concertados, destinados a salas de exposiciones y que estos reúnan las siguientes condiciones necesarias para ser destinadas a tal fin:

- Contar con un/a responsable-director/a de la sala.
- Reunir las medidas de seguridad establecidas para este tipo de equipamientos.
- Contar con vigilancia durante el horario de apertura al público.
- Disponer de un mínimo de cuatro horas al día de apertura al público (mañanas o tardes).

## Artículo 3.—*Documentación*

3.1. Las solicitudes de subvención se presentarán en la instancia oficial, cuyo modelo figura como anexo I del presente decreto foral, junto a la documentación que a continuación se relaciona:

3.2. Proyecto de cada una de las exposiciones, con especificación de:

- Objetivos.
- Contenido de la misma/s.
- Itinerario de esta/s, con especificación de fechas.
- Presupuesto global de ingresos y gastos del proyecto común (anexo II):

— En el apartado de ingresos se especificarán los siguientes conceptos:

- Ingresos por otras subvenciones.
- Ingresos por patrocinio privado.
- Ingresos por venta de catálogos.

- Gastuen atalean honako kontzeptu hauek zehaztuko dira:
- Erakusketarako katalogoa egiteko gastua (diseinua, argazkiak, testuak idaztea eta inprimatzea).
  - Iragarpen-kartelaren gastua.
  - Erakusketaren berri zabaltzeko dokumentazioaren gastua.
  - Komisariotzaren gastua.
  - Artelanen garraioaren gastua.
- e) Proiektu komunak udal eskatzailean duen sarrera eta gastuen aurrekontu bereizia (III. eranskina).
- Sarreraren atalean honako kontzeptu hauek zehaztuko dira:
- Beste diru-laguntza batzuen bidezko diru-sarrerak.
  - Babesle pribatuek emandako diru-sarrerak.
  - Katalogoak saltzen eskuratutako diru-sarrerak.
- Gastuen atalean honako kontzeptu hauek zehaztuko dira:
- Erakusketarako katalogoa egiteko gastua (diseinua, argazkiak, testuak idaztea eta inprimatzea).
  - Iragarpen-kartelaren gastua.
  - Erakusketaren berri zabaltzeko dokumentazioaren gastua.
  - Komisariotzaren gastua.
  - Artelanen garraioaren gastua.
- f) Erakusketak komisarioa baldin badu, haren izena eta curriculum.
- g) Katalogoaren eta erakusketa iragartzeko kartelaren diseinua.
- En el apartado de gastos se especificarán los siguientes conceptos:
- Gasto de realización del catálogo de la/s exposición/es (diseño, fotografías, redacción de textos e impresión).
  - Gasto del cartel anunciador.
  - Gasto de la documentación para la divulgación de la/s exposición/es.
  - Gasto del comisariado.
  - Gasto del transporte de las obras de arte.
- e) Presupuesto individualizado de ingresos y gastos del proyecto común en el municipio solicitante (anexo III):
- En el apartado de ingresos se especificarán los siguientes conceptos:
- Ingresos por otras subvenciones.
  - Ingresos por patrocinio privado.
  - Ingresos por venta de catálogos.
- En el apartado de gastos se especificarán los siguientes conceptos:
- Gasto de realización del catálogo de la/s exposición/es (diseño, fotografías, redacción de textos e impresión).
  - Gasto del cartel anunciador.
  - Gasto de la documentación para la divulgación de la/s exposición/es.
  - Gasto del comisariado.
  - Gasto del transporte de las obras de arte.
- f) Nombre y currículum de la persona comisaria si lo hubiere.
- g) Diseño del catálogo y del cartel anunciador de la exposición.

#### 4. artikulua.—*Eskabideak eta epeak*

1. Proiektu komun batean parte hartzen duten udal, udal erakunde autonomo nahiz udal fundazio publiko bakoitzak eskabidea aurkeztu behar du, eta argi eta garbi jakinarazi behar dute proiektua euren herrian garatzeak sortzen duen gastua.

2. Eskabideak Kultur Ekintzako Zerbitzuaren bulegoetan aurkeztu ahal izango dira (Bilbo, Errekalde zumardia 30, 2. solairua), asteleheneetik ostiralera, 9:00etik 13,30era; edota Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legea aldatu zuen urtarilaren 13ko 4/1999 Legearen 38.4 artikulua ezarritako eran.

3. Eskabideak, kasuaren arabera, honako hauetako batek egin eta sinatu beharko ditu:

- Alkateak edo, bestela, Kultura Arloko titularrak.
- Kultur arloan eskumenak dituen erakunde autonomoko lehendakariak.
- Udal fundazio publikoko lehendakariak edo, bestela, haren ordezkariak.

4. Eskabideak aurkezteko hilaibetkoa (1) epea izango da, foru dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

5. Eskabideak behar bezala beteta ez badaude, edo eskabidearekin batera foru dekretu honetan eskatutako agirietakoren bat aurkeztu ez bada, orduan erakunde interesdunari agindeia egingo zaio, hamar (10) egun balioduneko epearen barruan hutsunea zuzendu edo beharrezko agiriak aurkez ditzan; horrela egiten ez bada, eskabidean atzera egin duela ulertuko dela eta, behin ebazpena emanda, eskabidea artxibatu egingo dela adieraziko zaio.

6. Beharrezkoa izanez gero, eskabideak ebazteko beharrezkotzat jotzen dituen agiri osagarri guztiak eskatu ahal izango dizkie Kultur Ekintzako Zerbitzuak eskaera egin duten erakundeei. Dokumentazio osagarri hori horretarako ezarritako epearen barruan aurkeztu ezik, erakundeak atzera egin duela ulertuko da eta eskabidea artxibatu egingo da, horretarako ebazpena eman ondoren.

#### Artículo 4.—*Solicitudes y plazos*

1. Las solicitudes deberán ser formuladas por cada uno de los ayuntamientos, organismos autónomos municipales y fundaciones públicas municipales de Bizkaia que formen parte de un proyecto común, con indicación expresa del gasto que origine el desarrollo del proyecto en su respectiva localidad.

2. Las solicitudes se podrán presentar en las oficinas del Servicio de Acción Cultural, sitas en Bilbao, Alda. Rekalde, 30, 2.º (de lunes a viernes de 09:00 a 13:30 horas), o en la forma que determina el artículo 38.4 de la Ley 4/1999, de 13 de enero, de modificación de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

3. Las solicitudes, según el caso que se trate, serán formuladas y deberán ir firmadas por:

- Alcalde/sa, o en su defecto, titular del Área de Cultura.
- Presidente/a del organismo autónomo con competencias en materia de cultura.
- Presidente/a, o en su defecto, representante de la fundación pública municipal.

4. El plazo de presentación de solicitudes será de un (1) mes contado a partir del día siguiente al de la publicación del presente decreto foral en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

5. Si las solicitudes no se formalizaran completamente o faltara alguno de los documentos exigidos por el presente decreto foral, se requerirá a la entidad interesada para que en el plazo de diez (10) días hábiles subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistida de su petición, archivándose la misma, previa la correspondiente resolución.

6. En aquellos casos que se considere necesario, el Servicio de Acción Cultural podrá requerir a las entidades peticionarias cuanta documentación complementaria estime oportuna para proceder a la resolución de las solicitudes formalizadas. Si la entidad requerida no presentase la documentación en el plazo que se establezca se le tendrá por desistida de su solicitud, archivándose la misma, previa la correspondiente resolución.

**5. artikulua.—Irizpideak**

1. Proiektu bakoitza honako alderdi hauek kontuan hartuz baloratuko da:

- A) Erakusketaren kalitate artistikoa: 50 puntu, gehienez.
  - A.1. Kultur interesa: 0 eta 10 puntu bitarte.
  - A.2. Erakusketaren edukia: 25 puntu, gehienez.
    - Abangoardiako artea: 25 puntu.
    - Arte klasikoa: 15 puntu.
    - Joera ezberdinak: 20 puntu.
  - A.3. Erakusketan Bizkaiko artistak egotea: 15 puntu, gehienez.
    - 0 eta 3 artista bitartean: 10 puntu.
    - 3 artista baino gehiago: 15 puntu.
- B) Erakusketa izango den areto kopurua: 25 puntu, gehienez.
  - 3 aretotan: 15 puntu.
  - 4 eta 6 areto artean: 20 puntu.
  - 6 areto baino gehiagotan: 25 puntu.
- C) Katalogoaren eta kartelaren diseinua: 20 puntu, gehienez.
  - Estetika: 0 eta 10 puntu bitarte.
  - Berrikuntza: 0 eta 5 puntu bitarte.
  - Erabilitako teknika eta prozedurak: 0 eta 5 puntu bitarte.
- D) Erakusketak komisariotza izatea: 5 puntu.

Proiektuek 50 puntu baino gutxiago lortzen dituztenean, haien eskabideak ez dira aintzat hartuko.

Diru-laguntzak honako ehuneko honen arabera eta proportzionalki emango dira:

- 76 eta 100 puntu artean, %41etik %60ra arte.
- 50 eta 75 puntu artean, %21etik %40ra arte.

2. Diru-laguntzaren zenbatekoa honako alderdi hauek sortzen duen gastu osoaren % 60 izan ahalko da gehienez:

- A) Erakusketarako katalogoaren edizioa (diseinua, argazkiak, testuak idaztea eta inprimatzea).
- B) Erakusketa/k iragartzeko kartela/k editatzea, bai eta erakusketa/k jendarteratu eta sustatzeko erabiltzen den gainerako dokumentazioa, inprimatutakoa, ere.
- C) Erakusketako komisariotza.
- D) Artelanak dauden tokitik erakusketa aretora garraiatzea eta jatorrizko lekura itzultzea, bai eta areto batetik beste batera garraiatzea ere.

3. Diru-laguntza horiek ezin dira inolaz ere erabili erakusketa aretoek berek sortzen duten gastua finantzatzeko: mantentze-lanak, aretoko eginkizunak betetzen dituzten langileak, materiala eskuratzea eta abar.

**6. artikulua.—Ebazpena**

1. Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 22.4. artikuluan xedatutakoa betetzeko, deialdi honetan ez da lehenbizi behin-behineko ebazpen proposamena emango eta gero interesdunei entzunaldiaren izapidea eman, interesdunek ekarri dituzten egitateak, alegazioak eta frogak bakarrik jasoko direlako prozeduran eta horiek bakarrik hartuko direlako aintzat.

2. Deialdia ebatzi baino lehen, eskatzaileek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela egiaztatuko du Kultur Ekintzako Zerbitzuak. Egiaztapenaren ondorioz ikusten bada eskatzailearen batek betebeharrak horietako bat, edozein, ez duela betetzen, agindeia egingo zaio 10 eguneko epean egoera hori erregulariza dezan, eta ohartaraziko zaio, hori egiten ez badu, bere eskabidean atzera egindakotzat joko dela.

**Artículo 5.—Criterios**

1. Se valorará cada uno de los proyectos basándose en:

- A) Calidad artística de la exposición: hasta 50 puntos.
  - A.1. Interés cultural: de 0 a 10 puntos.
  - A.2. Contenido de la exposición. Hasta 25 puntos:
    - Arte de vanguardia: 25 puntos.
    - Arte clásico: 15 puntos.
    - Diferentes tendencias: 20 puntos.
  - A.3. Representación de artistas vizcaínos en la exposición: hasta 15 puntos.
    - De 0 a 3 artistas: 10 puntos.
    - Más de 3 artistas: 15 puntos.
- B) Número de salas en las que se presente la exposición: hasta 25 puntos.
  - En 3 salas: 15 puntos.
  - De 4 a 6 salas: 20 puntos.
  - Más de 6 salas: 25 puntos.
- C) Diseño del catálogo y cartel: hasta 20 puntos:
  - Estética: de 0 a 10 puntos.
  - Innovación: de 0 a 5 puntos.
  - Técnica-procedimientos utilizados: de 0 a 5 puntos.
- D) Existencia de comisariado de la exposición: 5 puntos.

Aquellas solicitudes cuyos proyectos consigan una valoración inferior a 50 puntos no serán estimadas.

Las subvenciones se otorgarán de acuerdo a los siguientes porcentajes, y de forma proporcional:

- De 76 a 100 puntos, del 41% hasta el 60%.
- De 50 a 75 puntos, del 21% hasta el 40%.

2. El importe de las subvenciones podrá ser de hasta el 60% del total del gasto que originan los siguientes conceptos:

- A) Edición del catálogo/s de la/s exposición/es (diseño, fotografías, redacción de textos e impresión).
- B) Edición cartel/es anunciador/es de la/s exposición/es, así como aquella otra documentación que sea impresa, destinada a la divulgación y promoción de la/s exposición/es.
- C) Comisariado de la/s exposición/es.
- D) Transporte de las obras de arte desde el lugar en que se encuentran ubicadas a la sala de exposiciones y regreso, así como entre las salas.

3. En ningún caso se destinarán estas subvenciones a financiar el gasto propio que originan las salas de exposiciones: mantenimiento, personal laboral que desempeña sus funciones, adquisiciones de material, etc.

**Artículo 6.—Resolución**

1. No se prevé en esta convocatoria, a efectos de lo dispuesto por el artículo 22.4 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, la resolución, en primer lugar, a través de una propuesta de resolución provisional tras la que se conceda trámite de audiencia a las personas interesadas, puesto que no figurarán en el procedimiento ni serán tenidos en cuenta otros hechos ni otras alegaciones y pruebas que las aducidas por las personas interesadas.

2. Previo a la resolución de la convocatoria, el Servicio de Acción Cultural comprobará que las entidades solicitantes se encuentran al corriente de sus obligaciones tributarias y para con la Seguridad Social. Si como consecuencia de tal comprobación resultare que alguna incumple cualquiera de tales obligaciones, será requerida para que en el plazo de 10 días regularice tal situación con advertencia de que, en otro caso, su solicitud será dada por desistida.

3. Eskabideak Kultura Saileko foru diputatuak ebatziko ditu foru agindu bidez, Kulturako zuzendari nagusiak proposatuta eta Kultur Ekintzako Zerbitzuak txostena egin ondoren. Hain zuzen, eskabideak aurkezteko epea bukatzean zenbatzen hasiko den bi (2) hilabeteko epean emango du foru agindua.

Epe hori eskabideari buruzko ebazpen adierazirik eman gabe igarotzen bada, eskabidea ezetsizat joko da; hala ere, geroago berriazko ebazpena eman ahal izango da.

Deialdi hau ebatzeko emango den foru agindua Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, gehienez ere ebazpena eman eta handik hilabetera (1). Argitaratu ostean, gainera, posta ziurtatuaren bidez erabakiaren berri emango zaie foru diru-laguntza horien deialdirako eskabidea aurkeztu duten guztiei. Jakinarazpen horrek beren-beregi jasoko du ebazpenak administrazio bidea bukatzen duela, eta interesa duen herri administrazioak bi hileko epea duela administrazioarekiko auzi-bidetik errekurritzeko, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik zenbatzen hasita. Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 44. artikuluan zehazten denaren arabera, aurrez agindeia egin bada, orduan, errekurtsioa aurkezteko epea beren-beregiko erabakiaren jakinarazpena jasotzen den egunaren biharamunean hasiko da zenbatzen edo, bestela, ustez ezetsizat jotzen den egunaren biharamunean.

4. Arautegi honen babesean emandako diru-laguntzak batez beste erabakirik izango dira beste administrazio batzuek, erakunde publikoek nahiz pribatuek, estatukoek nahiz nazioartekoek helburu berbererako ematen dituztenekin.

5. Diru-laguntza emateko kontuan hartutako baldintzaren bat aldatzeak, eta dena dela, aldi berean estatuko edo nazioarteko beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatuek emandako beste diru-laguntza edo laguntza batzuk lortzeak, diru-laguntza emateko ebazpena aldatzea ekar dezake, hain zuzen ere, foru dekretu honen bitartez araututako diru-laguntzei doakien zenbatekoa, bera bakarrik edo beste diru-laguntza edo laguntzaren batekin batera, inola ere ezin delako izan erakunde onuradunak garatuko duen jardueraren kostua baino handiagoa.

## 7. artikulua.—*Ordainketa*

1. Diru-laguntza eman dela jakinarazi eta berehala, dagokion zenbatekoa ordaintzeko tramitazioa egingo du Kultur Ekintza Zerbitzuak Ogasun eta Finantzen Foru Sailarekin; eta onuradunei ez zaie horretarako inolako bermerik eskatuko.

Betebeharra aitortu eta diru-laguntza ordaindu aurretik, erakunde onuradunek zerga betebeharrak eta, hala badagokio, Gizarte Segurantzarekikoak bete dituztela egiaztatuko da.

2. Aurrekoak egiaztatu ondoren, erakunde onuradunetarikoen baten batek betebeharrak horietako bat, edozein, ez duela betetzen ikusten bada, agindeia egingo zaio 10 eguneko epean egoera hori erregulariza dezan, eta ohartaraziko zaio egoera erregularizatu ezean galdu egingo duela diru-laguntza hori jasotzeko eskubidea.

## 8. artikulua.—*Betebeharrak*

Foru dekretu honen bitartez arautzen diren diru-laguntzen erakunde onuradunek honako bete behar hauek egiteko konpromisoa hartzen dute:

- Diru-laguntza ematea eragin duen jarduera gauzatzea.
- Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Sailaren aurrean justifikatzea proiektua gauzatu dela, laguntza ematea eragin zuten baldintzak bete direla eta diruz lagundu den proiektuari dagokion gastua nola aplikatu den ere bai. Horretarako, honako agiri hauek aurkeztu behar dira Kultur Ekintzako Zerbitzuaren bulegoetan, 2011ko martxoaren 1a baino lehen:

— Diruz lagundu den erakusketa bakoitzaren garapenari doakion azalpen memoria, erakusketak zein neurritan gauzatu diren zehaztuta.

3. Las solicitudes serán resueltas por la Ilma. Sra. diputada foral del Departamento de Cultura, a través de la correspondiente orden foral, a propuesta del director general de Cultura, previo informe del Servicio de Acción Cultural, en el plazo de dos (2) meses a contar desde la fecha de finalización del plazo de presentación de solicitudes.

En el caso que, transcurrido dicho plazo, no conste resolución expresa de la solicitud, se entenderá que la misma ha sido desestimada sin perjuicio de que con posterioridad sea resuelta de forma expresa.

La orden foral por la que se resuelva la presente convocatoria será publicada en el «Boletín Oficial de Bizkaia» en el plazo máximo de un (1) mes desde su adopción, siendo, una vez publicada, notificada por correo certificado a todos y cada uno de los sujetos que hayan presentado su solicitud a la presente convocatoria de subvenciones forales. Contendrá expresa mención a que la misma agota la vía administrativa, y podrá ser recurrida por la Administración Pública interesada vía contencioso-administrativa en el plazo de dos meses contados desde el día siguiente al de notificación de esta resolución. Si hubiera precedido requerimiento previo conforme a lo dispuesto en el artículo 44 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa, dicho plazo se computará desde el día siguiente a aquel en que se reciba la comunicación del acuerdo expreso o se entienda presuntamente rechazado.

